EROSKIK SUPERMERKATU FRANKIZIATU BERRI BAT INAUGURATU DU MARBELLAN, MALAGAN

- **EROSKI/City berriak elikadura-zerbitzu osoa eskaintzen du, fabrikatzaileen markekin, kalitatezko marka propio batekin eta 6.000 produktu-erreferentzia baino gehiagorekin.**
- **EROSKIk frankizia-eredua bultzatzen jarraitzen du, eta bere sarea sendotzen ari da: Espainia osoan 600 saltoki frankiziatu baino gehiago ditu.**

Marbella, 2026ko azaroaren 19.- EROSKIk supermerkatu berri bat inauguratu du Marbellako udalerrian (Malaga), Miraflores kaleko 4. zenbakian. EROSKI/City markaren pean dagoen saltokiak bezeroari tratu pertsonalizatua eskaintzen dio, tokiko produktuen eta sasoiko elikagai freskoen aldeko apustu sendoa egiten du (6.000 erreferentzia baino gehiagorekin), elikadura osasungarria sustatzen du eta egunero erosketak egitean aurrezteko modu berriak eskaintzen ditu. Saltokiak 6 pertsonako langile taldea du.

Supermerkatu berriak fabrikatzaile liderren marketako produktuen, marka propioen eta tokiko ekoizleen produktu-sorta zabala du, 243 metro koadroko salmenta-aretoan. Halaber, elikagai fresko askotarikoak eskaintzen ditu, batez ere sasoiko tokiko fruta eta barazkiak, eta produktu osasungarriek pisu handiagoa hartzen dute, produktu ekologikoen sorta zabal baten bidez. Horrez gain, ogi eta opil egin berriak ere eskaintzen ditu, bezeroei freskotasun gorena bermatzeko.

Eskaintzak eta sustapen-kanpainak hilero izango dira, kontsumitzaileen aurrezkia sustatzeko. Aurrezkiaren aldeko apustu horren adierazpide nagusia EROSKI Club da, markaren Bezero Bazkideei zuzendutako fidelizazio-programa; promozio oso erakargarriak eskaintzen ditu, baita Travel Club programaren abantaila guztiak ere. 60.000 kontsumitzaile baino gehiago dira kooperatibako Bezero Bazkide, eta dagoeneko EROSKI Cluben abantailez gozatzen dute Malagako probintzian.

2025ean 46 frankizia inauguratu ditu

EROSKIk 46 frankizia inauguratu zituen 2025ean, guztira 9 milioi euro baino gehiagoko inbertsioarekin eta 276 lanpostu berri sortuz. Hedapen horrek, denda propioen sarearen eraldaketarekin batera, «Contigo» merkataritza-ereduaren bultzada indartzen du, EROSKI establezimenduen ezaugarri baita.

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko arduraduna
Patricia Martín Sanchidrián
Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO - Prentsa bulegoa
Silvia Peralta
Tel: 917 379 950

EROSKIk frankizia-eredua bultzatzen jarraitzen du, eta bere sarea sendotzen ari da: Espainia osoan 600 saltoki frankiziatu baino gehiago ditu. 2026ko ekitaldian, konpainiak 50 frankizia berri baino gehiago irekitzea aurreikusten du, eta, hala, bere sarearen hedapenarekin jarraituko du, Katalunian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Andaluzian, Madrilen, Gaztela-Mantxan, Balearretan, Galizian eta Levanten arreta estrategikoa jarrita, hazkunde iraunkorraren eta hurbiltasunaren estrategiarekin bat.

Sari entzutetsuak jaso ditu

EROSKI Urteko Frankizia Onena 2027 eta Urteko Merkataritza Onena 2027 izendatu dute, «Hurbileko supermerkatuak» kategorian, «Comercio del Año 2026-2027» sarietan. Aitorpen horiek kontsumitzaileek ematen dituzte, Espainiako kontsumitzaileen sariketa handienean eta retail sektoreko merkatu-azterlan handienetako batean.

EROSKIk «Ibilbide Onena duen Frankizia» saria ere jaso du, 2024an Gasteizen egin zen FrankiNorte azokaren edizioan, Asociación Española de Franquiciadores (AEF) erakundeak emana.

Halaber, EROSKIren frankiziatuetako bat «Urteko Frankiziatu Onena» izendatu zuten elikadura kategorian, hori ere AEFk. Sari horrek bere eguneroko lana nabarmentzen du, eta frankiziatuak EROSKIk frankizia ulertzeko dituen balioak nola gorpuzten dituen, frankiziatuen prestakuntzan eta etengabeko aholkularitzan egindako ahalegina islatuz. Balio bereizgarri horiek arrakastaz hedatzen dira sare osora, EROSKIren frankizientzako marketin-plan sendo batek lagunduta.

Lankidetza-hitzarmenak

Kooperatibak lankidetza-hitzarmenari eusten dio Confederación Española de Asociaciones de Jóvenes Empresarios (CEAJE) erakundearekin, enpresari gazteen eta autonomoen artean ekintzailetza lagundu eta bultzatzeko. Ekintzailearekiko konpromisoa indartzeaz gain, EROSKIk tokiko ekonomiaren garapenari ekarpena egin nahi dio autonomia-erkidego ezberdinetan.

Halaber, EROSKIk lankidetza-hitzarmena du Asociación de Mujeres Empresarias Iberoamericanas (AMEIB) erakundearekin, ekintzailetzarako eta autoenpleguerako sarbidea errazteko, laguntzan eta enpresa-proiektuen garapen bateratuan oinarritutako frankizia-eredu baten bidez.

EROSKIri buruz

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko arduraduna
Patricia Martín Sanchidrián
Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO - Prentsa bulegoa
Silvia Peralta
Tel: 917 379 950

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,32ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian, eta buruzagikide (kolider) da Balearretan. 2025aren amaieran, 1.508 saltoki zituen bere sare komertzial omnikanalean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita optikak, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 28.200 lagunek baino gehiagok osatzen dute langile taldea; horietatik 8.300 baino gehiago, berriz, bazkide eta jabe dira.

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko arduraduna
Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO - Prentsa bulegoa
Silvia Peralta

Tel: 917 379 950